

Entzumen-behatokia

-
Hirien eta herritarren sarea soinuekin eta entzuleekin gurutzatzeari buruz.

-
Gako-hitzak: Herritarrak, Entzutea, Hizkuntza-aniztasuna, Espazio publikoa.


-
<http://entzuten.net/>

Zuzendaritza eta koordinazioa



audio-lab.org

Ekoizpena



DONOSTIA / SAN SEBASTIÁN 2016
EUROPAKO KULTUR HIRIBURUA
DSS2016.EU



Laguntzaileak

arantzazuGaur
FUNDACIÓN ARANTZAZU GAUR FUNDAZIOA



Mediateletipos

0. AURKEZPENA

-

Entzumen-behatokia komunikazioaren eta herritarren artean dauden harremanei buruzko proiektu bat da, eta bost esku-hartze artistikoren, ikerketa kolektibo baten eta eztabaidatzeko eta mintzatzeko foro baten bidez gauzatzen da. Proiektuak hizkuntzaren ingurumariak, pertzepzioa eta gure bizikidetzaren ezartzeko osatzen ditugun akordioak ditu abiapuntu. Helburua da gure ingurua, gizarte-gaiak eta hiria entzumenaren eta arte-sormen garaikidearen bidez hautemateko dugun moduari buruzko galderak egitea: zer hertsadura dakartzkigu isiltasunak? Zertan oinarritzen da beste pertsonetikiko komunikazioa? Hizkuntza zenbateraino ez da ahozkoa, gizatiarra edo naturala?

Programa **bost esku-hartze** artistikoz osatzen da, eta beren kokapen zehatzarekin lotuta daude. Horietako bakoitzak arinki aldatzen du esku hartutako espazioaren ohikotasuna, egunerokoaren garrantzia gauza ikusezinetan oinarritzen baita zenbaitetan.

Ikerketa-prozesua herritarrek entzuteko duten moduei buruzko kontsultan oinarritu da, eta ingurua eta hiriguneko harreman sozialak ulertzeko esparru kritikoa osatu du. Prozesuak herritarrei egindako kontsulta, lan-talde irekia eta proiektua amaitzean publikoki aurkeztuko den azterketa teorikoa biltzen ditu.

"Paisaiarik gabe" foroak inguruarekin dugun harremana eztabaidatzeko eta horri buruz mintzatzeko organoa eratzen du. Horretarako, soinu-pasaiaren praktikan eta ikerketan aritzen diren pertsonekin solasaldiak, hitzaldiak, kontzertuak, entzunaldiak eta bestelako jardura publikoak egingo dira.

-

Proiektu hau Entzumen-behatokia eta Audiolabek zuzendua eta koordinatua da, Donostia / San Sebastian 2016, Europako Kultur Hiriburua, Tabakalera Kultura Garaikidearen Nazioarteko Zentroa eta Cristina Enea Fundazioaren ekoizpenarekin; Arantzazu Gaur Fundazioa, Aiete Kultur Etxea, Koldo Mitxelena eta Mediateletiposekin elkarlanean.

1. EKITALDIAK

-



-

<http://entzuten.net/intervenciones/>

Ghost Forest

Francisco López

-

Ekainaren 10etik uztailaren 10era

Inaugurazioa: ekainak 10, ostirala, 20 h (izena ematea beharra: gu@entzuten.net) 5 €

Ordutegia: ostirala (18 – 20 h), larunbata (11 – 14 h + 17 – 20 h) eta igandea (11 – 14 h)

-

Tokia: Arantzazu Gandiaga Topagunea

Webgunea: <http://www.arantzazugandiaga.com/>

-

Instalazioa:

Basoak giro akusmatiko naturalak dira: beren egituraren ohiko konplexutasunak geruza anitzeko eta, maiz, konplexutasun handiko fenomeno sonikoetarako baldintzak areagotzen ditu, eta horien iturriak nekez ikus daitezke. «Ghost Forest» (baso mamua) mundu osoko basoetan gauzatutako jatorrizko ingurune-grabaketa multzo baten konposizio-transposizioa da. Energia sonikoa sakabanatzen duten eta espazioaren beraren islapenak indartzen dituzten mini-bozgorailuen ezohiko sistema bat erabilia, eta hiru dimentsioko soinu-giroa sortzeko helburuarekin –sotilki murgiltzailea eta soinuak birgauzatzen diren tokiarekiko erreaktiboa–, atzemandako jatorrizko «errealitateak» kanpoko iragazketen bidezko bilakaera izan du. Prozesu hori maiztasun handiko mamu-espektro bat agerrarazi arte gauzatu da, transposatutako baso-giroetatik abiatuta.

-

Biografia:

Francisco López musika esperimentalaren eta soinu-artearen arloko pertsonarik garrantzitsuen artean kokatzen dute nazioartean. Hogeita hamabost urte baino gehiago darama soinu-sorkuntzaren eta ingurune-grabaketan bidezko lanaren alorrean, eta denbora horretan soinu-unibertso erabat pertsonala eta ikonoklasta garatu du, mundua sakonki entzutea oinarritzat hartuta. Ehunka soinu-instalazio, landa-grabaketako proiektu eta kontzertu/performance gauzatu ditu hirurogeita hamar herrialdetan, nazioarteko entzun-areto, museo, galeria eta jaialdi nagusietan. Bere soinu-obrak zuzeneko eta estudioko lankidetzak dauzka, nazioarteko 150 artista baino gehiagorekin, eta mundu osoko 350 diskoetxek eta argitaletxek baino gehiagok argitaratu dute. Beste sarien artean, Lópezek lau aldiz jaso du Linz hiriko (Austria) Ars Electronica jaialdi ospetsuko ohorezko aipamena, eta 2010eko Quartz Awards sarietako (Frantzia) irabazle izan zen soinu-antologia kategorian.

-

Webgunea:

<http://www.franciscolopez.net/>

-

Ghost Forest:

<https://www.youtube.com/watch?v=IMakyR36ezM>

Rara Avis

ALKU

-

Uztailaren 8tik uztailaren 31ra

Inaugurazioa: uztailak 8, ostirala

-

Tokia: Aiete Kultur Etxea

Webgunea: <http://bit.ly/1R3AqEn>

-

Instalazioa:

Rara Avis lanak soinu-sintesiko sistema autonomoen bitartez gauzatutako txori-kantuen zortzi imitazio bildu ditu. Zortzi pieza horiek, Oswald Berthold, Chris Brown, Anders Dahl, Joe Gilmore, Fredrik Olofsson, Tim Perkis, Roc Jiménez de Cisneros eta Peter Worth autoreek eginak, mimesiaz, subjektibotasunaz, fenomenologia estralurtarraz eta egiazkoaren eta irudizkoaren arteko gune grisaz dihardute.

Entzumen-behatokiaren esparruan, Rara Avisek espezieen eta erreferentzia-esparruen arteko talka proposatzen du, imitazioaren ideia inguruko glosolalia sintetikoko ariketa bat.

-

Biografia:

ALKU diskoetxea eta artisten kolektiboa Anna Ramosek eta Roc Jiménez de Cisnerosek sortu zuten 1997an. Besteak beste, Goodiepal, Mark Fell, Felix Kubin, Kevin Drumm, Ben Vida, The League of Automatic Music Composers edo euren taldea den EVOLen lanak argitaratu dituzte. Horrez gain, ALKUK instalazio-formatuko hainbat lan aurkeztu ditu zenbait herrialdetako museo eta galeriatan. Diskoetxearen katalogoaren ildo jarraituetako bat kontzeptu baten inguruan sortutako lan kolektiboena da.

-

Webgunea:

<http://alkualkualkualkualkualkualkualkualku.org/>

-

Liburutegiko portaera-arauak indargabetzea

Luz Broto

-

Irailaren 16tik urriaren 16ra

Inaugurazioa: irailak 16, ostirala

-

Tokia: Koldo Mitxelena liburutegia

Webgunea: <http://www.kmliburutegia.net/?lng=es>

-

Ekitaldia:

Liburutegiak dira, ospitaleekin batera, isiltasuna beharrezkoa eta derrigorrezkoa duten toki publikoak. Kontzentrazioaren gailuak dira. Pribatutasuna testuinguru publikoan baimentzeko paradoxa zailari aurre egin behar izaten diote toki hauek. Espazio akustikoa harremanetarako espazioa bada, kasu horietan higie-ne-araupen jarri beharra dago. Luz Brotoren lanak trukatu egiten ditu zenbaitetan kanpoa eta barrua kontzeptuak, publikoa eta pribatua, itxia eta irekia; guztiak nozio aldaezinak liburutegiaren ohiko definizioan.

-

Biografia:

Luz Broto Bartzelonan bizi da eta han egiten du lan. Bere lana eskuarki bizitoki edo igarobide ditugun espazioen erabilerak eta esanahiak arinki aldatzen dituzten esku-hartze espezifikotetan datza. Brotoren azken proposamenen artean aurki daitezke «Erakusketak iraun bitartean zentroa irekita egongo da» (Lo Pati, Amposta, 2015), «Zulo iraunkorra irekitzea» (MACBA, Bartzelona, 2015), «Etxera itzultzea» (CA2M, Madril, 2015), «Ibai baten emaria handitzea» (La Panera, Lleida, 2014) eta «Hari-muturrak lotu» (García Galeria, Madril, 2014). Talde-erakusketatan hartu du parte, esaterako Performing Politics (Institut für Raumexperimente, Berlin, 2012), Jonge Spaanse Kunst (Appartement Elisa Platteau, Brusela, 2012), Die Fünfte Säule (Secession, Viena, 2011) eta 5x5 Arte garaikidearen nazioarteko saria (EAC, Castelló, 2011) ekitaldietan.

-

Webgunea:

<http://www.luzbroto.net/>

-

Voz Sorda II Chiste Raro

Jaume Ferrete

-

Egonaldia uztailearen 1etik (ostirala) uztailearen 30era (larunbata)

Inaugurazioa: urriak 15, larunbata

-

Tokia: Boulevardeko kioskoa, Donostia

Webgunea: <http://bit.ly/1S7JMz7>

-

Ekitaldia:

Entzutea, edo belarria ipintzea, gorputza agentzia politikoen etorkizuneko banaketa bati emate gisa uler daiteke. Hala ere, gor-baldintzak pertsona izateko eta munduan egoteko hainbat modu ahalbidetzen ditu, eta horiek zalantzan jartzen dute mundu entzulearen berezko entzute-nozioak. Orduan, nola entzun entzuteko moduak beraiek zalantzan jartzen dituen horri? Gipuzkoako Gorren Elkartearekin elkarlanean, esku-hartze horretan egonaldi-hilabeteen grabatutako zeinu-hizkuntzako zenbait txiste bilduko dira, eta txiste horietako batzuk eszenaratuko dituen ekitaldi publiko batek emango dio amaiera. Voz Sorda II lanari esker, entzuleen eta pertsona gorren arteko zubiak eraikitzen dira txistearen bidez, gure gizarte-testuinguruan eguneroko komunikazioaren funtsezko elementu baten bidez.

-

Biografia:

Jaume Ferrete Vázquez (Mollet del Vallés, 1980) ahotsaren dimentsio politikoen inguruan aritzen da, lanean, kontzertu-performance, lantegi, web, entzumen-saio edo soinu-instalazio gisako formatuetatik. Bere lana hainbat esparrutan garatzen du: ikusizko arteetan (Secession, Vienna; Bartzelonako Arte Garaikidearen Museoa; Urban Video Project, New York), musikal eta eszenikoan (LEM Festival, Mercat de les Flors i Antic Teatre, Bartzelonan; Poetas por Km2, Madril; SOS jaialdia, Murtzia) eta hezkuntzan (Bartzelonako Creadors en Residència, UNAMeko Genero Ikasketen Unibertsitate Programa), besteen artean. Zenbait erakundek aintzatetsi dute haren lana diru-laguntzen, sarien eta egonaldien bitartez, hala nola Kataluniako Generalitatko Kultura Sailak, Matadero (Madril), Helsinki International Artists in Residency Project eta Vessel Art Projects (Bari) proiektuek, Q-02k (Brusela), Casa Vecinak (Mexico DF) eta Generación 2016k (Madril), besteen artean. 2008az geroztik koordinatzailekide da Sons de Barcelona soinu-pedagogiako proiektuan, Bartzelonako Pompeu Fabra Unibertsitateko Musika Teknologiako Taldeak abiatua.

-

Webgunea:

<http://www.jaumeferrete.net/>

-


Voz Mal:

<https://vimeo.com/53784784>

-

2. TALDE-IKERKETA

-



-

<http://entzuten.net/investigacion/>

Talde-ikerketa

2016ko urtarriletik irailera

Tokia: hiriko 18 auzoak

-

Ikerketaren aurkezpena: urriak 14

Tokia: *(baieztatu gabe)*

-

Entzumen-behatokiaren talde-ikerketa sortzaile- eta ikertzaile-talde batek 2016ko urtarriletik irailera hiriko 18 auzoetako biztanleei egindako kontsultan datza. Helburua hiriko espazio akustikoaren hautemate subjektiboari eta bizikidetzari buruzko lehen eskuko informazioa biltzea da. Ikerketa hau hurbilketa esperimental da, eta uztartu egiten ditu sorkuntza-prozesuen bidezko ohiko iturri akademikoen azterketa eta eguneroko ezagutzen bilketa.

-

Lan-talde irekia

Irailaren 21etik 23ra

Tokia: Kaxilda

Webgunea: <https://www.facebook.com/kaXilda/>

-

Koordinatzailea: José Luis Espejo

Sortzaileak: *Txesus Garate, Luca Rullo, Illart Alkorta, Mikel R. Nieto, José Luis Espejo, Xabier Erkizia eta Myriam Aycaguer.*

Sarrera: librea, alde zuzenetik izena emanda (gu@entzuten.net)

-

Irailan zehar, lan-talde honek 2016ko maiatz eta irail bitartean herritarrei egindako elkarrizketetan jasotako materialak komunean jarriko ditu. Bertaratutakoek material hori kontsultatu eta aztertu ahalko dute, proposatutako irakurgai batzuekin batera, bai eta ikus-entzunezko bestelako elementu batzuk ere. Helburua bildutako informazioa ordenatzea era bere inguruan eztabaidatzea eta adostea izango da, ikerketa-prozesuaren emaitzak zehazteko balioko duen azterlan bat elaboratze aldera.

3. "Paisairik gabe" foroa

-
Topagune bihurtzeko asmoarekin aurkezten dugun ziklo hau Entzumen-behatokiaren izeneko egitasmo zabalago baten hasiera baino ez da. Behatokiak, soinuaren inguruko hainbat adierazpide artistiko erabiliz (musika, soinu artea, irratia...) gure soinuazko ingurunearekin ezartzen ditugun harreman eta arretak aztertzeko balioko duen egitasmoa izan nahi du. Entzumen-behatokiaren Donostia2016, Europako Kultur Hiriburuari eta Tabakalerari esker martxan jarritako egitasmoa da.

70. hamarkadan R. Murray Schafer musikari eta ikertzaile kanadiarrak osatu zuen ikerketa talde aitzindariak gure soinu ingurunea definitzeko erabili zuen kontzeptua da soinu paisaia. Ingelerazko landscapetik eratorritako soundscape hitz-jokoaz baliatuz, ikertzaile talde honek gure inguruan etengabe gertatzen eta eraldatzen den soinuazko errealitatea azaltzeko erabili zuen oraindik erreferente den definizio hau. Baina definizio ororekin gertatu ohi den bezala, denborak, erabilerak eta definizioaren objektua bera praktikan (artistikoki nahiz kontzeptualki) jarri duten erabiltzaileek, hurbilketa kritiko ezberdinak egin dituzte, honezkerok, berria izanagatik ere kontserbadurismoan erortzeko arriskuan dagoen terminoaren gainean.

Proposamen honek, Entzumenaren behatoki izan nahi duen egitasmoaren ideia bera ia modu literalean jorratuz, soinu paisairi buruzko eztabaida eta elkarrizketa espazio egonkorra sortu nahi du. Jatorri eta esperientzia ezberdinetako agenteekin (arte, kultura, pentsamendua, industria, hirigintza, gizarte zientziak..) elkarlanean antolatutako topaketa informalean bidez osatutako elkarrizketa, hitzaldi eta bestelako ekitaldi publikoen egitaraua osatu dugu hortarako.

Paisaia gisara onartzen dugun eta ondorioz gurea bezala hartzen duguna, hainbat erlazio sozial, politiko, ekologiko, ekonomiko, kultural eta estetikoaren bidez lotzen da. Gure subjektibotasunetik jaiotzen den paisaia, hain kutsatua, mugatua eta zanpatua baldin bada, gure irudimena eta egitazkotasunaren kontzeptua bera guztiz erritmoz kanpo geratzen dira. Baina aldiberean, indar prometeiko den heinean, sentitzeko hain zailak diren inguruneari buruzko ideiak ulergarri egiteko modu bakarra da irudimena. Ez hori bakarrik, kontakizun estetiko eta paisaiaren gure ideia subjektiboaren oinarriak zalantzan jartzeko tresna bihurtzen da irudimena.

Topaketak berezko duen ugaritasunari ahalik eta etekin gehien ateratzeko helburuarekin, soinua eta paisaiaren gainean burutuko diren hitzaspertu hauek idazketa prozesu bat ere jarriko dute martxan. Foroaren paraleloan, Soinuaren eta paisaiaren gaiari buruzko hurbilketa kritiko desberdinekin osatuko den argitalpen kolektibo baterako oinarriak ezarriko dira.

Azken finean, topaketa-ekitaldien behin-behineko denboralidadetik areago, etorkizunean ere alde zuzeneko ideiak zalantzan jarri eta eztabaida zabalak eragiteko tresna propioak sortzea da azken helburua. Argitalpena soilik elkartruke bidez zabalduko da eta aldiberean, trukean jasotako dokumentuekin, gaiari buruzko nazioarteko artxibo publikoa osatzen joango da.

-
Hurrengo hitzaldia:

"Soinu artxibotik gertakizunera"

Hilaria: Xóan-Xil (Escoitar.org)

Data: 2016ko ekainak 18, larunbata

Tokia: Tabakalera, Z Aretoa

-
<http://entzuten.net/es/forums/>

